



**2013KO URRIAREN 18KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hanahiruko urriaren hemezortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko urriaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 57 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMAR MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (10.291,13 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

13-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko urriaren 5ean, heriotzagatik.

- 13-11-02 zbk.dun esped.: bere osasun egoeraren hobekutza dela eta, 2013ko urriaren 9tik aurrera zerbitzua murriztea, astean 15 ordutik 7 ordura.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 28 zbk.dun esped.: etxebizitza aldaketa dela eta, etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea.
- 13-01-013 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako 250€ko dirulaguntza ematea eta mantenimendu gastuetarako 46,25€ko dirulaguntza ematea, irailetik urrira. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 13-01-014 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako 215€ko dirulaguntza ematea eta mantenimentu gastuetarako 39,78€ko dirulaguntza ematea, irailetik urrira. Ematen zaiona eskatutakoaren %86 da.

#### Udal tasa eta zergengatik laguntzak.-

- 13-16-01 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 196,12 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-16-02 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 211,50 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-16-03 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 319,88 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-16-04 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 160,92 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-16-06 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 329,75 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-16-07 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 519,07 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-16-08 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 151,49 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 13-16-09 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 177,86 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-16-11 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 114,20 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 13-16-12 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 248,16 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-16-14 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 199,68 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-16-16 zbk.dun esped.: udal tasa eta zergen ordainketarako 234,24 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak, Lazkaoko Preso eta Iheslarien Aldeko Taldeari, 2013ko Sanmioletako jaien egitarauaren barruan, 800 lagunentzako izaten den herri afarian mahaiaik eta aulkiak jarri eta kendu egiteagatik, MILA (1.000€) EUROko dirulaguntza emateko proposamena egin du.





Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du bera, proposamen honen aurrean, abstenitu egingo dela.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko hiru botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (EAJ) proposamena onartzea erabakitzen du.

#### V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara Batzordeak, 2013ko irailaren 21ean "Kontseilua" erakundeak antolatutako "Euskaraz bizi nahi dut" korrika saioan parte hartu zuten haur partehartzaile bakoitzeko 2 euroko dirulaguntza emateko proposamena egin du. Partehartzailean 121 haur izan ziren eta beraz dirulaguntza proposamena 242€koa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Lazkao Kirol Elkartea.-

Lazkao Kirol Elkartea 2013 urtean aurrera eramaten ari den kirol jarduerengatik dirulaguntzaren 6.000€ko aurrerapena egitea proposatzen du.

##### Lazkao Extreme taldea.-

2013ko irailaren 21ean Lazkaoko I. Mendi Duetloi probaren antolaketarengatik 585€ko dirulaguntza ematea.

##### Arrastaka Mendi Taldea.-

2013ko Ehun Milak ultratrail probaren antolaketarengatik 800€ko dirulaguntza ematea.

##### Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartea.-

VII. Goierrri Beheko 10 udalen pelota txapelketaren antolaketarengatik 120€ko dirulaguntza ematea.

##### Kirol taldeak.-

Ondoren zerrendatzen diren kirol taldeei, 2013ko ekitaldi eta jarduerengatik honako dirulaguntzak ematea:

| <u>KIROL TALDEA</u>    | <u>DIRULAGUNTZA</u> |
|------------------------|---------------------|
| Futbol taldea          | 7.535,00 €          |
| Pelota taldea          | 1.754,00 €          |
| Igeriketa taldea       | 519,00 €            |
| Atletismo taldea       | 680,00 €            |
| Mendi taldea           | 657,00 €            |
| Txirrindulari elkartea | 240,00 €            |



Sofbol taldea

613,00 €

**GUZTIRA .....**

**11.998,00 € "**

VII.- UDAL LANGILEEN 2013KO PRODUKTIBITATE GEHIGARRIA.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du berak gai hau gaur eztabaidatu behar zela gaur goizean jakin duela eta aztertzeko denbora gehiago beharko lukeela eta beste baterako uztea eskatzen du.

Alkateak baietz erantzuten dio eta gaia mahai gainean uzten da.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

